

**KULTURA "BERRI TXARRAK" TALDEAREN KONTZERTUA GAUR, HILAK 30 · GEHIGARRIA KILIBARREN
KIROLA ZUZENDARITZA BERRIA MORKAIKO MENDIZALE TALDEAN**

BARREn

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A · 2004ko urtea

rrilaren 30a/XII. urtea/474. zkia

Sagarrik ez, sagardoa nahi!

**"SAGARRA LORE LORE DENBORA DENIAN, GAZTEAK HANKAK ARIN SOINUA DENIAN"
(Esaera zaharra)**

Instalakuntza
berriak



www.bmw.es/leza

¿Te gusta conducir?

Itxaronaldia amaitu da.
Leza Motor-ek ateak zabaldu ditu Deba Behean.

Leza Motor
Sigma Poligonoa
Xixilión, 2
Tel.: 943 74 00 11/13 86
Elgoibar

Realaren ibilgailu ofiziala



Afrika, Euskal Herria eta "Bizar Gorri"

Duela egun batzuk Espainiako hiriburu batean polizia zetorrela-eta oihalak jaso eta manifestaldi bat bailitzan korrika hanka egiten zuen makina bat etorkinek. Irudia etxe batetik hartu zuten eta benetan ikusgarria zen. Ez dut uste gurean momentuz behintzat horrelakorik ikusiko dugunik. Egia da, ordea, herriko kaleetan gero eta afrikar gehiago ikusten ditugula CD eta DVD piratak saltzen. Euskaraz "merke ta ona" esaten dute batzuek irrifarra ahoan dutela, beste batzuek, aldiz, etxetik urrunegi daudela gogoratzen dutela dirudi.

Salmentak ongi jantzi, jan eta nonbaiten lo egiteko haina ematen diela dirudi. Horrek poztan nau. Baina nor dago negozio guzti horren atzean? Nor da "Bizar gorri"? Nor da etorkin hauen ahultasunaz aprobetxatzen den pirata ahaltsua? Izan ere, askotan gustuko CD bat ikustean erosi eta horrela etorkinari laguntzatxo bat eskaintzea ondo legokeela pentsatzen dut. Negozio horren aurka nagoela gogoratzen dut orduan. Are gehiago Madonna eta Metallica-ren diskoen ondoan euskal taldeen lanak ikusten ditudanean. Ez dakit arazoa konponduko litzatekeen, baina dudarik gabe auziak hobera egingo luke etorkinen egoera hobetzeko



Aurtengo maiatzean Espainiar Estatu Nazio Batuen Erakundeko giza eskubideen batzordeko behatzailearen aurrean aurkeztu beharko da, giza eskubideen urraketengatik dituen salaketei aurre egiteko. Hori dela eta kanpaina bat abiatu da Euskal Herrian 25.000 sinadura biltzeko eta Nazio Batuen Erakundean aurkezteko.

Espainiar Estatuak torturatu egiten du, gerra zikina antolatzen du komeni zaionean, dispertsioa erabiltzen du presoak eta senideak mintzeko, komunikabideak ixten ditu (Egin, Egunkaria), alderdi politiko zein eragile sozialak ilegalizatzen ditu, hizkuntza eskubideak zapaltzen ditu, Autodeterminazio eskubidea ukatzen du nahiz eta NBEn onetzia egon, euskal kirolariak beraien selekzioarekin parte har dezaten eragozten du... Hauek guztiak eta gehiago nozitu behar ditugu euskaldunok. Hau horrela izanik, alderdi zein instituzio gehienek beste aldera begiratzen dute, ETaren biolentziaz mintzatzen diren bitartean. Azken kasua dugu Eusko Jaurlaritzak martxan jarri duen kanpaina lotsagabea. PNVk, EAK eta IUk izen eta abizenak ipintzen dituzte alde bateko biolentzia salatzerakoan, kanpainak finantzatzen dituzte denon diruarekin baina ez dugu inolako kanpainarik ikusten torturak salatzeko (eta Ertzantza?), hizkuntza eskubideak ezagutarazi eta babesteko, milaka euskaldunen eskubide politikoak defendatzeko, dispertsioa salatzeko. Baina errealitatea oso gordina da eta ezin da mago batek egingo lukeen moduan desagertarazi. Errealitate hori NBera eramango dugu orain eta Elgoibarren ere izango da aukera

Atal hauek ez dira BARREN editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriak, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzeko du.

asteke noti-

Kexak.....	5
motz Motz.....	8
gehigarria.....	13
kirolak.....	20
aGenda	26

Urruzunoren

Barrea ezagutzen ez zuen herria



Herri hartan ez zen barrerik ezagutzen. Ezkutaturik, oroitezinezko garaietatik zokoraturik aurkitzen zen keinu likitsa besterik ez zen. Egia esan, biztanle haiek barrearen nozioa galdua zuten. Urte askotako heziketa trinkoak ekarritako bilakaera luze eta kiribildu batek, barre egiteko premia desagertarazi zien. Are gehiago, erabat irrazionala eta zentzugabea iruditzen zitzaien barreari hurbil zekiokkeen edozer.

Baina inoiz burua galdu eta barrez lehertzen hasten zenik ere bazen, eta horrelakotan, atsekabeturiko familiak edo lagunek herriaren hegoaldean hiruzpalau kilometrotara zegoen isolamendu zentrura eraman behar izaten zuten gizagaixo hura, gaitza izurrite baten gisa heda ez zedin. Horrela behintzat, salbu sentitzen ziren herriko biztanleak.

Hala ere, lasaitasuna ez zen inoiz osoa, izan ere, hego haizeak noiz joko beldurrez egoten ziren beti, orduan herriraino heltzen baitziren isolamendu zentrutik irteten ziren barre algarak.

ELGOIBARKO HERRIARI

LXI. Nazioarteko Juan Mugerza Kroseko antolatzaileak, Udal Kirol Patronatua eta Mintxeta Atletismo Taldeak, zuen laguntza eta aldi berean aurtengo arrakastaren bultzatzaile izatea eskertu nahi dizuegu. Zuen lankidetzarik gabe, ezinezkoa litzateke, egunkarietako titularretan, mundu mailan, hain aipatua izan den Elgoibarko herriaren izena agertzea. Hurrengoan ere, komunikabideek, elgoibartar guztien laguntza eta ahalegina lau haizetara zabal dezaten.

Eskerrik asko guztioi.

Mintxeta Atletismo Taldea.

ASTEKARIA

BaRREn

Nafarroa enparantza,
2
20870 ELGOIBAR
X 943 74 41 12
Publizitatea:
X 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barren@topagunea.com
Helbide Informatikoa:
www.topagunea.com/ba
rren
ANONTATZAILIA

LAGUNTZAILIA Elgoibarko Udala **KOORDINATZAILIA** Ainhoa Andonegii **ZUZENDARIA** Asier Orbea **GENIGARRIEN ARDURADUNA** Maite Uriarte **PUBLIZITATZA** Amaia Erkizia **MAKETATZAILIA** Jaione Unanue **GERENTZIA** Jon Peli Uriguen **KOLABORATZAILIAK** Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T. **AZALEKO ESANNA** ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik **INPRIMATEGIA** Gertu Koop. E. **TIRADA** 4.175 ale **LEGE GORDAILUA** 55-1038/92 **ISSN** 1139-1855


ELGOIBARKO IZARRA
 KULTUR ELKARTEA
 Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura
 Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako












① **Herritar batek esan digunez**, gasolindegian obrak egin zituztenetik, barandila azpitik zikinkeria guztia errekarra joaten da: “Behin obrak egiten hasita, gauzak ondo egin behar dira, eta barandila hori ez dago batere ondo. Kotxeek zikinkeria asko askatzen dute, eta hori dena errekarra joaten da. Lan handia egiten ari dira Deba ibaia garbitzeko, eta denon artean garbi mantendu behar dugu”.

① **Igeri egitea gustuko duen herritar batek**, Kiroldagiko ordutegia oso murrizta dela azaldu digu: “Asteazkenean zehar eguerdietan itxi egiten dute kiroldegia, eta lanean dagoen jende askorentzat ordu hori izaten da igerian egiteko momentu bakarra. Larunbatetan ere, ordu bat arte bakarrik irekitzen dute, eta jendea goizean lo egin eta beranduago jaikitzea gustatzen zaiola kontuan izanik, apur bat beranduago ireki eta beranduago itxi beharko luketela iruditzen zait”.

⑤

① **Upai Zaharra kalean bizi den emakume batek esan digunez**, Ikastola aurreko zelaia itxi dutenetik, jende guztiak beraien etxe aurrera eramaten ditu txakurrak txiza eta kaka egiteko: “Etxebizitza berriak egiten hasi direnetik, Ikastola aurreko zelaia itxi egin dute, eta orain, txakur jabeek gure kalera ekartzen dituzte animaliak txiza eta kaka egitera. Kale osoa kakaz beteta lagatzen digute, eta goizetan, kalera ateratzerakoan lau begiz ibili behar izaten dugu kaka mokordoak ez zapaltzeko, edo bestela, neuk garbitu behar izaten ditut. Asteburuetan egoera okerragoa izaten da, jendeak egiten baitigu txiza portalean. Ez dago eskubiderik,




TXALO-

① **Guraso talde batek C.D Elgoibarko Alebin taldeko jokalaria eta entrenatzailea txalotu nahi ditu Donostiako torneoan 6. postuan sailkatu zirelako. Zorionak, eta jarraitu**

①



Barrak, Birrak eta Barreak



©KOKO 2004-24E

Sagardotegien

AULIA (Legorreta)

- ⊙ **SAGARDOTEGI SASOIA:** Santa Luziatik maiatzaren bukaerara arte.
- ⊙ **JATEKOA:** Sagardotegiko menua.
- ⊙ **LEKUA:** 140 lagun eserita nahiz zutik.



DOLAREDUN
sagardotegia

Aulia Enea baserria ✂ **943 80 60 66**

EIZMENDI (Hernani)

- ⊙ **NAGUSIA:** Maixa Eizmendi.
- ⊙ **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urtarriletik apirilaren bukaerara arte.
- ⊙ **JATEKOA:** Sagardotegiko menua edo norberak eramandakoa.
- ⊙ **LEKUA:** 160 lagun.



DOLAREDUN
sagardotegia

Osinaga auzoa ✂ **943 55 64 05**

GURUTZETA (Astigarraga)

- ⊙ **NAGUSIA:** Gurutzeta S.A.T.
- ⊙ **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urtarriletik apirilaren bukaerara arte.
- ⊙ **JATEKOA:** Sagardotegiko menua edo norberak eramandakoa.
- ⊙ **LEKUA:** 120 lagun zutik.



DOLAREDUN
sagardotegia

Oialume bidea, 63 ✂ **943 55 22 42**

ISASTEGI (Tolosa)

- ⊙ **NAGUSIA:** Migel Mari Lasa Arostegi.
- ⊙ **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urtarriletik maiatzera arte.
- ⊙ **JATEKOA:** Sagardotegiko menua.
- ⊙ **LEKUA:** 200 lagun.



Aldaba-Txiki auzoa, 15 ✂ **943 65 29 64**
(web orria du)

KORTA (Gabiria)

- ⊙ **NAGUSIA:** Inazio Korta.
- ⊙ **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urte guztia.
- ⊙ **JATEKOA:** Sagardotegiko menua eta mariskoa.
- ⊙ **LEKUA:** 110 lagun.



Korta sagardotegia ✂ **943 88 71 86**

LARREGAIN (Hernani)

- ⊙ **NAGUSIA:** Ixabel Santa Kruz.
- ⊙ **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urtarriletik apirilaren bukaerara arte. Astelehenetan eta igande gauetan itxita.
- ⊙ **JATEKOA:** Sagardotegiko menua edo norberak eramandakoa.



DOLAREDUN
sagardotegia

Larregain etxea, Ereñozu ✂ **943 55 58 46**
(web orria du)

GOIKO-LASTOLA (Hernani)

- ⊗ **NAGUSIA:** Lazaro Etxabe Zerain.
- ⊗ **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urtarriletik apirilaren bukaerara arte.
- ⊗ **JATEKOA:** Sagardotegiko menua edo norberak eramandakoa.
- ⊗ **LEKUA:** 80 lagun.



Ereñozu Auzoa ☎ 943 55 32 72

IZETA (Aia)

- ⊗ **NAGUSIA:** Manuel Iruretagoiena
- ⊗ **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urte osoan irekita, sagardotegia eta jatetxea.
- ⊗ **JATEKOA:** Sagardotegiko menua.
- ⊗ **LEKUA:** 200 lagun.



DOLAREDUN
sagardotegia

Izeta baserria (Urdaneta bidea) ☎ 943 13 16

OTATZA (Zerain)

- ⊗ **NAGUSIA:** Ramoni Lopetegi.
- ⊗ **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urtarriletik apirilera arte. Asteazkenetan itxita. Urte osoan erretegia.
- ⊗ **JATEKOA:** Sagardotegiko menua edo norberak eramandakoa.
- ⊗ **LEKUA:** 140 lagun.



DOLAREDUN
sagardotegia

Otatza baserria ☎ 943 80 17 57

SAGARDOAREN

Sagardoaren jatorriari buruzko teoria eta iritzi asko dago. Batzuk diotenez, Egipto, Bizantzio eta beste zenbait tokitan Cristo aurreko urteetan sagardoa edateko ohitura zabaldua omen zen; grekoek ere ohitura hau jarraiten omen zuten. Gerora, erromatarrek nahiago izan zuten ardo eta “vinu ex malis” gisa izendatutako sagardoa ia-ia osasungai gisa soilik aipatzen zuten.

Jose M. de Legazpi asturiarrak bere “El llagar y la sidra” liburuan dioenez, Santiagoko Bideko lurak deskribatzen dituen “Codex Calixtinus”-en sagardoa aipatzen da.

Beste ikertzaile batzuen arabera, zeltek Europa osoan zabaldutako edari batean du jatorria sagardoak. Sagar puska,



belar eta abarrez lagundurik uretan utzi eta bere kasa egiten omen zen edari hau. Agidanean, arabiarrek irakatsitako nekazaritzaren aurrerapenak zirela medio zabaldu ziren sagar ale handiak ematen dituzten bariatateak eta hauek ekoizteko teknikak Europan zehar, ekialdetik mendebaldera eta hegoaldeko iparraldera.

Egun sagardoa izenez ezagutzen dugun edaria Euskal Herria eta

SARASOLA (Asteasu)

- ⊗ **NAGUSIA:** Inaxio Sarasola
- ⊗ **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urtarriletik apirilaren bukaerara arte.
- ⊗ **JATEKOA:** Sagardotegiko menua.
- ⊗ **LEKUA:** 180 lagun, eserita nahiz zutik.



DOLAREDUN
sagardotegia

Beballea Auzoa ☎ 943 69 02 83

Jesus Mari Makazagak, Udalak eta Elgoibarko Izarra Kultur Elkartek Elgoibarko euskararen gaineko ikerlana aurkeztu zuten

Elgoibarko euskara, galtzen utzi behar ez dugun altxorra ikerlana aurkeztu zuten Jesus Mari Makazagak, Udalak eta Elgoibarko Izarra Kultur Elkartek joan zen asteazkenean, urtarrilaren 28an Kultur Etxean. Elgoibarko euskararekin sentsibilizatuta dauden herritarrentzat prestatutako ekitaldia izan zen, eta aurkezpena egin ostean Elgoibarko berbetari eragingo dion batzordea antolatzeke lehenengo pausoak eman ziren.

Jesus Mari Makazaga filologoa eta EHuko irakaslea izan da ikerketan lanaren egilea, baina Elgoibarko Izarra Kultur Elkartea eta Elgoibarko Udalaren laguntza izan du



Hiru urte eman dituzte Elgoibarko euskararen ikerketa lanean.

elkarrizketak, grabazioak eta transkripzioak egiteko eta lanaren lehen fase hori finantzatzeko.

Arloka banatutako lana

Aspaldi hasitako lana izanik, 3 urte eman ditu Jesus Mari Makazagak lan

honetan buru belarri. Hainbat arlok osatzen dute lan hau: fonetika, aditza, izena, sintaxia, esamoldeak, hiztegia, testuak eta azentua izango dira ikerlan honen atal nagusiak. Jesus Mari Makazagak berak azaldu digunez, aditzaren atala osatzea izan da zailena. Honekin batera, hizkuntza baten inguruan beti gauza berriak sortzen direla azaldu digu, eta lanari amaiera ematea ere, asko kostatu zaiola aitortu digu.

Epe laburrerako asmoak

Lana amaituta dago jadanik, baina oraingoz ez dago jasotzerik. Liburu batean bildu eta irailean argitaratzeko asmoa dago. Bitartean, martxoan hasiko den ikastaro bat eskainiko du Jesus Mari Makazagak

Hautesle errolda otsailaren 2ra arte egongo da ikusgai udaletxean

Datorren martxoaren 14ko hauteskunde orokorrak direla-eta, Elgoibarko Udalak herriko hautesleen datuak jarriko ditu ikusgai udaletxean. Otsailaren 2ra arte izango da datu hauek ikusteko aukera. Udaletik, norberaren datuak zuzen dauden ikustera pasatzeko eskaera egin dute, oker dauden datu guztiak lehenbailehen zuzendu ahal izateko. Datu zerrenda hauek, astelehenetik ostegunera goizeko 9:00etatik 13:00ak arte, eta 16:00etatik 18:00ak arte egongo dira ikusgai. Ostiraletan eta larunbatetan, berriz, goizeko

Konporta Elkartek 25 urte bete ditu



Konporta Elkartea 1979ko Kurtarrilaren 20an sortu zuten herriko bi koadrilen artean. Aurtengo San Sebastian Egunean, beraz, 25 urte bete zituen, eta joan zen larunbatean, urtarrilaren 24an ospatu zituzten elkartearen

zilarrezko ezteiak. Hasiera-hasieratik leku berean egon da Konporta Elkartea, eta gaur egun 50 bazkide ditu. Marivi Agirregomezkorta Elgoibarko alkatea, egungo bazkideak eta bazkide zirenen alargunak elkartu ziren ekitaldian.

Kzguneak ikastaro berriak antolatu

Elgoibarko Kzguneak "IT Kzgunea" izeneko ikastaroa eskainiko du otsailean. 20 orduko ikastaroa izango da, eta ikasleek interneteko nabigazioari dagokion oinarritzkoena ikasiko dute, besteak beste, korreo elektronikoa eta bilatzaileak erabiltzen. Ikastaro hau otsailaren 2tik 13ra, eta 23tik eta martxoaren 5era eskainiko da. Bestalde, otsailaren 16tik 20ra, 50 urtetik gorakoentzat Nagusiweb ikastaroa eskainiko dute. Honekin batera lau mintegi berezi eskainiko ditu Kzguneak otsailean: "Michelin gidarekin bidaiatu" (otsailak 4, 16:30-17:30), "zure aseguru



kontratatu" (otsailak 11, 17:00-18:00), "berehalako mezularitza" (otsailak 18 eta 19, 18:00-20:00), eta "banku elektronikoa" (otsailak 25, 18:00-20:00). Bestalde, Kzgunean izena ematen duten 18 urtetik gorakoek, dohainik nabigatzeko aukera

Elgoibarko Izarra Elkarteak, "euskara errefortzuak" programa jarriko du martxan

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak, Udalarekin elkarlanean, "Euskara Errefortzuak" izeneko programa jarriko du martxan datorren otsailean hasi eta maiatza bitartean. Programa honen helburua, euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituzten haur eta gaztetxoei laguntzea da. Horretarako, eskolak bukatu ostean, beraiei zuzenduriko euskara errefortzuak prestatu dituzte mintzamina lantzeko. Errefortzu saio hauetan haurrei zuzenduriko jolas, abesti, ipuinak eta bestelakoak landuko dira, azken finean, mintzamina lantzeko metodologiarik entrenigarriena.

Programa hau HH5, LH1, LH2 eta DBH1 eta 2ko haur eta gaztetxoei zuzenduta dago. Ikastetxe bakoitzeko haurrek ikastetxean bertan jasoko dituzte saioak, eta DBHkoek berriz, Plaza Txikiko lekalean. Haurrek astean...

San Blas Egunean meza bereziak egongo dira opilak bedeinkatzeko

San Blas Eguna tradizio handiko eguna da Elgoibarren eta asko dira San Blas opilak bedeinkatzeko ohitura dutenak. Horretarako meza bereziak izango dira datorren otsailaren 3an: Santa Klarako elizan goizeko 8:00etan, Parrokian 9:00etan, eta arratsalde 19:00etan (hiletaren bat baldin badago, amaitu ostean egingo da San Blas

opilen bedeinkazioa), eta Madalako elizan 9:00etan. Bestalde, tradizioaren arabera, San Blasek eztarriko mina sendatzen omen du. Horregatik eramaten dira San Blas egunean lepoan jartzeko lokarriak bedeinkatzera, izan ere, lokarri hori lepoan lotuz gero, urte osoan ez da eztarriko minik izango. Lokarria 9



**EIBARKO
HIZKUNTZA
ESKOLA
OFIZIALA**

Jardiñeta, 3 bis
20600 EIBAR

Argibide gehiago 943 20 06 18 telefono zenbakian
edo Eskolako webgunean:
www.euskalnet.net/eoieibar


**MATRIKULA
LIBREA 2003/04**
ZALDIBAR, MALLABIA,
ERMUA ETA DEBA
BAILARAN bizi diren
ikasleak

- MATRIKULA-SOBREAK
JASO: Otsailaren 2tik 13ra.
 - TOKIA: H.E.O.-eko
Idazkaritzan
 - MATRIKULA BURUTU:
Sobrean adierazitako egun eta
orduan.
- N.A.N.a BEHARREZKO DA

INTURAK
PEDRO PEREZ BERIS-
Xixilion, 2 · 3.sotoa ☒ 943 74 36 52 - 74
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

Iriondo TABERNA
Astegunetan 7:00etan irekitzen
dugu
eta asteburuetan 9:00etan
Pedro Muguruza, 2 · Tel: 943 74 00 15

SEKULAKO ZALAPARTA SORTU DA ERC ALDERDIKO CAROD ROVIRA ETAREKIN ELKARRIZKETATU DELAKO



KOLDO ARANBURU

50 urte, obreroa

Nere ustez oso ausarta izan da ETakoein elkarrizketatu dala aitortzean. Bidea hori da, dialogotik bideratu behar da gai hau.

eta elkarrizketa da bidea.

MAIKA LOPEZ

44 urte, administraria

Oso ondo iruditzen zait. Hitz egin behar da, elkarrizketaren bidetik jarraitu behar da. Gai honen inguruan PPK eta PSOEek esan duten guztia ez zait ondo



ANDRES CABALLEROS

62 urte, jubilatua

Ospitalean egon naiz eta ez dut gai honen inguruan gauza askorik entzun. Hala ere, onerako egin badu, ondo iruditzen zait. Terrorismoaren kontra nago,

iruditzen.

AITOR ZABALA

33 urte, saltzailea

Ondo iruditzen zait. Bizi dugun egoera honetan, aurrerapauso garrantzitsua izan daiteke. Bere aldetik nahiko ausarta izan da, eta




ESKERTZA



2004ko urtarrilaren 24an, 78 urte zituela Elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkapena hartu ondoren hil zen, **TXOMIN LEYARISTI LARRAÑAGA "Panparron"**ren te, seme-alabak, bilobak eta gainerako sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,


emaz-



ESKERTZA



2004ko urtarrilaren 22an, 75 urte zituela hil zen, **BENEDICTA ZABALA OSORO**ren senarrak, semeak, anai-arrebak, ilobak eta gainerako sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



NEGUA HOBETO PASATZEKO SASOIKO FRUTA ETA BARAZKIAK

Egun sartzan garenean tenperaturarik apalenetara eta eguzkirik ez ikustera egokitu behar du gure gorputzak.

Naturak, beti burutsu, beti jakintsu, negua jasaten eta une-nekoak diren katarro, hotzei eta hotzikareei aurre egiten lagunduko gaituzten sasoiko elikagai osasuntsuekin bete digu mahaia dagoeneko.

Hotzaren kontra, neguko barazkiak

Zerba eta ziazerbak, orburuak, kuiak, buru-aza edo orri-aza, azalore edo Brusela azak, txanpinoiak, ilar eta babak, porruak, gardua, erremolatxa, errefauak, letxuak, berroak... neguko barazkiak ditugu. Hil hauetan oso jende gutxi ibiliko da arnasketa gaitzetatik aske. Sintomarik ohiko eta arruntena eztula da. Gaitz higuingarri horien kontrako propietate zoragarriak jantziriko sasoiko landareak eskura ditugula aprobetxatu behar dugu.

Barazki aliazeoek (tipula, baratxuria, porrua, etab) esate baterako, ezaugarri mukolitiko eta antiseptikoak dituzte: mukia samurturik, kanporatzea errazten dute eta, gainera, gaitza sortarazi edo larritu duten germenak (bakterioak edo birusak) kontrako borrokan dihardute. Tipula bati edo beste zeinahi barazki aliazeori darion esentzia inhalatu edo arnasteak mukiak kanporatu ez ezik, eztula bera ere eztatzen, gozatzen lagun dezake. Borrajak, berriz, arnas bideetako mukosak leuntzen ditu. Bere salda eta guzti, irakirik hartzea arnasketako gaitzen kontrako konponbide onuragarria da.

Fruta, osasunaren adiskide

Kiwi, limoia, mandarina, laranja, pomelo, fruta tropikalak (papaia, txirimoia, anana...) eta lehortutakoak (pikuak, aranak, datilak...) sasoi-sasoiko frutak ditugu eta, horrenbestez, kontsumitzeko aukera hobezina dugu orain, gure bitamina-gordailua betetzeko. Neguko fruta guztiak daukate azido askorbiko edo C bitamina asko. Bitamina honen iturri oparoena zitrikoak dira, batez ere, gualaba eta



Osasunari buruzko kezka bat argitu nahi baduzu, deitu BARRENEko 943 74 41 12ra

dei-

osasuna



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

(Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, yoga)

San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Surya Belardenda

(Zure osasunerako erremedio naturalak)

San Frantzisko, 23 • Tel: 943 74 25 34

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

OPTIKAK

Ikus Optiko-optometrista

San Bartolome, 10 • Tel: 943 74 37 34

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 • Tel: 943 74 03 59

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 • Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

PODOLOGOAK

Iñaki Rivero

San Bartolome, 28 • Tel: 943 74 32 90

Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

Oinberri

Errosario kalea, 25 • Tel: 943 74 17 95

Astearte-ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

Larunbatetan: 10:00-13:00

Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra

ESKOLA

AGENDA

Urtarrilak 31, 3.

305198 8 305198

Infantil mutilak

9:00 Ikastola B - Pilar B

9:55 Ikastola A - Pilar A

(Atzeratua) BHI A - BHI B

Infantil neskak

10:50 Ikastola B - Pilar B

11:45 BHI A - Pilar A

305198 7 305198

Alebin mutilak

10:30 Herri Eskola A - Ikastola A

11:15 Ikastola B - Pilar B

12:00 Mendaro A - Pilar A

Alebin neskak

10:30 Ikastola C - Pilar B

11:15 Herri Eskola A - Pilar A

21235198 8 63 21235198

Benjaminak

9:00 Herri Eskola C - Pilar C

9:35 Mendaro B - Herri Eskola B

10:10 Mendaro A - Pilar A

10:45 Ikastola A - Ikastola B

11:20 Herri Eskola A - Pilar A

11:55 Ikastola C - Ikastola D

Atxutxiamaiak antolatuta, Jaialdi Erraldoia izango da bihar Ikastolako frontoian

Atxutxiamaiak Aisialdi Taldeak antolatuta, Jaialdi Erraldoia izango da bihar, urtarrilak 31, Lehen Hezkuntzako haurrentzat. Arratsaldeko 16:00etan hasita, 19:00ak bitartean, magia ikuskizunak, tailerrak eta karaokea izango dira

Gurasoentzako VI. Jardunaldiak

Herri Eskolako Kalamua Guraso Elkartek hiru hitzaldi antolatu ditu. Datorren otsailaren 3an eta 10ean, Hirusta Kolektiboa hizlari izanik, “2 eta 12 urte bitarteko haurren garapen afektibo-sexuala” izeneko hitzaldia eskainiko dute. Hirugarren jardunaldia otsailaren 17an izango da. Baikara Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioko partaideek “Familian agertu daitezkeen arazoak antzematea” hitzaldia eskainiko dute. Jardunaldi guztiak ordu eta leku berean izango dira, hau da, arratsaldeko 18:30ean Kultur Etxean.

Ate Irekien Eguna

Herri Eskolak, bestalde, Ate Irekien Eguna ospatuko du datorren otsailaren 7an, zapatuan. Goizeko 11:30etik aurrera zabalik egongo dira Herri eskolako ate eta



instalakuntzak nahi dituenak ikus ditzan. Guraso, ikasle, ikasle ohi eta herritar guztiak daude gonbidatuta. Urasandira hurbiltzen direnek gaztelu puzgarri, joku eta tailer ezberdinetan olgetan aritzeko aukera izango dute. Arratsaldeko 16:30ean, berriz, Txan Magoak magia erakustaldia egingo du ikastetxeko gimnasioan.

Ikastolako ikasleen

Ikastolako frontoiak gainezka egin zuen joan zen urtarrilaren 24an. Haur Hezkuntzako ikasle txikienetatik hasita, sekulako ikuskizuna eskaini zuten Ikastolako ikasle guztiek. Artista txikiz bete zen frontoia, eta dantzarako zein antzerkirako sekulako dohainak dituztela erakutsi zuten. Errazu bertso eskolakoez ere, bertso saio polita eskaini zuten. Frontoiko harmailetan guraso eta artisten



Herri Eskolakoek San Sebastian eguna ospatu zuten

Donostia eta Azpeitikoaren pare, Elgoibarko Herri Eskolako ikasleek San Sebastian eguna ospatu zuten joan zen urtarrilaren 20an. Arratsaldeko 15:30ean ikastetxeko patioa atera ziren LH 1 eta 2. mailakoak. Sukaldariz jantzita, bakoitzak bere danborra soinean zuela, auzo guztira zabaldu zituzten beraien danbor hotsak. LH 5 eta 6. mailako hiru ikasle izan ziren danborradako zuzendariak. Beraien aginduak jarraituz, lau abesti jo zituzten: Diana, Tatiago, Martxa eta Idiarena. Guraso



KiliBarren

Ipuin-leihaketaren sari banaketa Guztira 62 lan aurkeztu ziren hiru mailatan

Mendaroko udalbatza-aretoan ospatu zen IX Ipuin Lehiaketaren sari banaketa. Aurten 62 lan aurkeztu dira 3 kategoriatan bereizita.

A KATEGORIAN Ainitze Ansozregi izan zen irabazlea "Joxeme mutikoa eta herensuge beldurtia" lanarekin. Bigarren saria berriz, Leire Orizak jaso zuen "Nire astoa Periko" ipuinarekin 75 eta 50 irabazi zituzten hurrenez hurren eskola materialean gastatzeko.

B KATEGORIAN Iker Esnaolaren "Taraknaren misterioa" ipuina izan zen epaimahaiarentzat onena, eskola materialean gastatzeko 100 irabazi zituelarik. Bigarren postua eta bai-



Argazkia: Egaña

ta 75 ere, Soana Rodriguezen "Elurretako panpina eta astoa" ipuinak lortu zituen.

C KATEGORIAN Maite Mugerzak izan zen txapelduna eta 250 ko saria lortu zuen "Oroitzen naiz zutaz" idazlarenengatik. Bigarren sariko 160 ak,

Antxon Segundo korrikalari mendarorarrak hirugarren postua lortu

Pasa den igandean Nazioarteko Donostiako Krosa ospatu zen Lasarte-Orian eta Mendaroko hiru korrikalari izan ziren bertan.

Infantil kategorian, Antxon Segundok hartu zuen parte, 3.010 metroko lasterketan 11:39 denbora eginenez. Hirugarren postuan sailkatu zen. Probaren irabazlea Iñaki Lopezegi izan zen (11:26) eta bigarrena Joseba Lizeaga (11:38).

Antxonek etorkizun handia dauka atleta moduan, Juan Mugerza krosean ere bigarren postua lortu baitzuen infantil kategorian.

Aipatzekoa da baita Mendaroko



Argazkia: Egaña

2 korrikalarik Senior mailan egin zuten lasterketa. Iker Mayorak 27. postua lortu zuen, 10.000 metroak 37:13an korrituz. Bestalde, Iñaki Pe-

Mendaroko euskaltegiak matrikulazio kanpaina hasi du "0" urratsekoentzat

In Leike, udaletxe eta AEKren laguntzaz, Mendaroko euskaltegiak matrikulazio kanpaina berri bati hasera eman dio euskaraz batere ez dakitenei zuzendua batik bat, "0" urratsekoei alegia. Klaseak otsailetik ekainera bitartean izango dira eta printzipioz goiz, arratsalde nahiz gauz eskainiko dira. Langabetu, ikasle, jubilatu eta gurasoek bakarrik matrikularen erdia ordaindu beharko dute eta kurtso bukaeran asistentziaren araberrako beka sistema aplikatuko da. Matrikulatzen interesatua dagoena edo informazioa jasotzea nahi duena gertura dadila in leike-ren lokalera (Goñati pilotalekua 3. Solairua). Orduategia: Astelehen, asteazken eta ostiraletan 19:30 - 20:30. Edonola ere edozein zalantza duenak honako telefonora dei dezake: 605754017. Matrikulatzeko azken eguna hilak 30, ostirala, izango da.

Santa Eskea otsailak 7an

Bi taldek osatuko dute aurtengo Santa eskea. Talde batek Plaza Auzoa, Zahatzu mendia eta Mendarozabal zeharkatuko ditu eskean, Panizo eta Andoni Larrañaga bertsolariekin. Beste taldeak, berriz, Aran Erreka eta Etxabe mendia, Billate eta Lasalde bertsolariekin. Bi taldeak goizeko 8,30etan elkartuko dira frontoi parean eta biltzen den dirua Mendaroko Musika Eskolarentzat izango da.

Eguerdian bazkaria dago Aizpen antolatuta. Bertara joateko as-



Kilibarren

Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratzen da.

lazko abenduaren 30ean 20 urte bete ziren Mendaroko Udala sortu zenetik. Egun hori ospatzeko, "Mendaro herria 20 urte" eskaini zuten udaletxean. Bertan duela 27 urte Junta Gestoran udaletxea sortzeko bildu zirenen testigintzak jasotzen dira bereziki, eta baita 1983ra bitartean Udala sortu arte protagonista izan zirenak ere. Juan Loyola izan zen Mendaroko lehen alkatea eta 1983-1991 bitartean egon zen udaletxearen buru; hasierak ez dira errazak izaten eta horri buruz galdetu diogu.



JUAN LOYOLA
Mendaroko lehen alkatea

“Mundua lortu genula



“Orain dela 20 barru

Nola sortu zen Mendaro?

Guruzpe soziedadetik sortu zan Mendaroko udaletxia. Lehenago bi intento inda zeuden baina ez zuten lortu udaletxia ateratzia. Horregatik 15 bat lagun elkartu ginan eta "udaletxia zergatik ez?" galdetu genion elkarri eta 7 urteko gestuia in ondoren lortu genduan. Mundua lortu genula uste genuan!!

Nolakoa izan zen herriko erantzuna?

Hasi ginanian Herriko Asanblada in gendun eta lokal baten kabituz ezin eta elizara jun bihar izan gendun. Gero, etxex etxe inkestak itxen egon ginan eta %98ak Mendaro herri moduan nahi zabala atera zan. Horrek kriston animua eman zigun eta aurrera egin gendun.

Politikan adituak al zineten?

Ezta ideiarik ere ez genduan politikaz. Guk lanerako gogua genuan, "amor propio" esaten dana. Barrixo batetik bat eta bestetik beste bat hartuta 15 lagun elkartu ginan, baina politika ez genuan ikusi ere in nahi.

Herria sortzeak aldaketa handia suposatu al zuen?

Izugarria. Guk hartu genuan 2 barrio bakarrik zeuden,



0 urte esan balie 20 urte

Azpilgoeta eta Garagarza. Ez zeuan ez planifikazio, ez araurik, ez frontoirik ufalak urtetzen zuan eta kaliak hartzen zitxuan. Garbi esanda, ezer ez zauan. 20 urtetan frontoia, industrialdeak, etxe berrixak eta ospitala in dira. Gainera zerbitzu aldetik gauza asko hobetu dira. Orain dela 20 urte esan balie 20 urte barru Mendaro hola ikusiko nabala, ez naban sinistuko.

Gogorra izan zen ezta?

Bai, oso urte gogorak izan zian. 1983ko abenduaren 30ean Ardantza zeon diputatu nagusi eta hura etorri zan inauguraziora. Hortik aurrera oso urte gogorak izan zian. Orain, udaletxian hauteskundiak daudenian politikuak aldatzen diaz, baina udaletxiak martxan jarraitzen du, hau da artxibuak, funtzionariuak hor daoz. Baina gure kasuan guzti hori sortu in bihar gendun. Lokalik ez geneukan eta bajo baten montau gengan dana. Orduan ez zauan alkate liberaurik, bilerak gaueko 9tan izaten zian eta gogorra zan.

Zergatik hartu zenuten erabakia?

Mendaro abandonatua zauan, Mutriku eta Elgoibarko alkatiei esaten genien ez zutela ezer laguntzen. Hemen go arazuen berri askotan ez zian enteratzen, noizian

behin kale-garbitzaile bat etorriko zan edo bonbila bat konpontzera norbait baina listo!

Orduan erabaki gengan udaletxia sortu bihar zala eta Diputazioak, Eusko Jaurlaritzak, Elgoibar eta Mutriko Udalak asko lagundu gintuzten.

Ikaragarri hasi omen da Mendaro

Bai, gaur egun edozeinekin kalia topatzen naiz eta ez det ezagutzen. Herria piskat ezezagundu in zaigu. Lehen den denak ezagutzen ginan baina orain erdixak ez ditzut ezagutzen. Lehen keja zan Mendaron ez dakit zenbat urtetan etxiak in gabe zaozela eta gaztiak ezkontzian kanpora juten zian eta jendiak beti esaten zigun: etxe batzuk itzazue.. hasieran ezin genitxun in arau subsidiariuak ez genitxulako eta hauek itxen 5 urte jun zitzaizkigun. Gero etxiak itxen hasi zian eta agian azkarregi jun da etxegintza

Ekitaldi bat egon zen Mendaroren 20.urtebetetzea ospatzeko, nolakoa izan zen?

Gestoran egon ginanei elkarrizketa bat in ziguten eta horrekin bideo bat in dabe. Bideuan sorrera nola izan zan azaltzen da, zein gestio in zian...

Gauza asko ahaztuta genitxun eta oso emozionantia izan zan ekitaldixa. 20 urtian elkarrekin egon ginanak



Erretratu zaharra



HO

metako erretratu zaharra Charo Eizagirrek laga digu. Argazkaria lueta 35 urte inguru ateratakua dela uste du, ontzen. Egunean ateratakua da, Garagartzako eliz aurrian. dardorik dantza taldeko neskak agertzen dia bertan, makil za je aurrian dantzatuz. Egun garrantzitsua izan da lehen orain duaren 8xa Mendaron". Lehen jai handiagoa izaten gogor dugu Charok, baina ohitura batzuek lortu dute gaur listea, "mezetatik irtetzean galletak eta ardo goxua dantzeren ohitura zauan lehen eta oraindik ere mantentzen da".

EGUNEZ

30	Ibañez
31	Yudego
1	Ibañez
2	Bidasolo
3	Etxeberria
	(Santa Ana kalean)
4	Fernandez
5	Yudego
6	Etxeberria
	(Errosario kalean)

GAUEZ

Ibañez
Ibañez
Bidasolo
Etxeberria
Fernandez
Yudego
Etxeberria

FARMAZIAK

ESCALA, Rekalde, 1 Soraluze.

Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ,

Herriko

enparantza 4, Garagarza.

Tel: 943 75 61 42

ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.

Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

1 igandea Foterio

OSASUNA

Anbulatorioa	943 03 26 10
Planning-a	943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak.....	943 74 03 85
D.Y.A (anbulantzia)	943 46 46 22
Gurutze Gorria.....	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Odol Emaileak	943 74 39 36

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....	943 74 04 42
PESA (Eibar).....	902 10 12 10
Taxi geltokia.....	943 74 08 98

UDALA

Euskara Zerbitzua.....	943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua	943 74 44 15
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Mendaroko Udala.....	943 75 61 00
Ongizate zerbitzua.....	943 74 10 08
Udaletxea	943 74 10 50
Udaltzaingoa.....	943 74 13 94

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra.....	943 74 16 26
Kiroldegia	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Liburutegia	943 74 35 25
Musika Eskola.....	943 74 21 45
Mintxeta	943 74 43 15
Parrokia	943 74 08 42
Postetxea	943 74 15 47
Gaztetxea.....	943 74 35 72
Gazte Informazioa	943 74 14 61

ADINEKOEN ETXEA

San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Eguneko Zentroa	943 74 45 65

IKASTETXEA

Haur Eskola.....	943 74 21 41
HII (EPA)	943 74 08 80
Herri Eskola.....	943 74 08 79
I.M.H.	943 74 41 32
Institutua	

Arreiturere.....	943 74 80 19
Ezenarro (Meka).....	943 74 80 19
Ikastola.....	943 74 44 41
Pilar Ikastetxea	943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN	943 74 41 12
El Diario Vasco	943 74 40 73
El Correo Español	943 74 10 82
Zazpiki irratia	943 74 34 74
Egunkaria.....	943 30 02 28
Gara	943 31 69 99

EuskoTre

DONOSTIA-BILBO

Egunero

Donostia-AMARA	5.45	06.45...	20.45
Elgoibar	07.02	08.02..	22.02

* jaiegunetan 7.45ean hasiko dira

MENDARO-ELGOIBAR

Egunero

Mendaro	07.50	08.50...	21.50
---------	-------	----------	-------

EuskoTre

AUTOBUSAK

BILBO-DONOSTIA

Egunero

Bilbo	06.00	7.00...	20.00
Elgoibar	07.23	08.23...	21.23

* jaiegunetan 8.00etan hasiko dira

ELGOIBAR-MENDARO

Astegunetan

Elgoibar	07.25	08.25	10.25...	21.25
----------	-------	-------	----------	-------

Jaiegunetan

ELGOIBAR

SIG ● ———— ● ARRIA

SIGMA - ARRIAGA

8:00	8:10
9:25	9:35
11:10	11:40
11:20	11:50
12:10	12:40
12:20	12:30
13:10	13:20
13:20	13:30
18:20	18:30
19:10	19:20

ARRIAGA - SIGMA

8:10	8:20
9:55	10:05
11:10	11:20
11:40	11:50
12:10	12:20
12:40	12:50
13:10	13:20
18:10	18:20
19:00	19:10

“AYUDA EN ACCIÓN” GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDE MADRILDARRAK EGOITZA BERRIA DAUKA EIBARREN

“Peruko biztanleak eskolaratzeko proiektua landuko dugu aurtengo kanpainan”



EULALI MORENO eta LOREA OYARZABAL

Iazko maiatzean sortu zen “Ayuda en acción” erakundea Eibarren. Egoitza nagusia Madrilén dago, eta Euskal Herrian Bilbon eta Donostian soilik zeuden Gobernu Kanpoko Erakunde honen egoitzak. Gure eskualdeko jende ugari Donostiako taldeko partaide zen, eta hauek sumatu zuten “Ayuda en acción” erakundearen egoitza berri baten beharra zegoela Debabarrenean. Honela, Eibarren sortu zen egoitza berria, baina bertako partaideak eskualde guztikoak dira. Talde honetan hiru elgoibartar daude, eta gaurkoan beraietako birekin hitz egin dugu: Eulali Moreno eta Lorea Oyarzabalek kontatu dizkigute urte honetan egin dituzten lanak, eta aurrera begira eskuartearen dituzten proiektuak azaldu dizkigute.

Eulali Moreno eta Lorea Oyarzabalek azaldu digutenez, “Ayuda en acción” erakundearen helburu nagusia sentsibilizazioa da: “Jendeak badaki iparraldeko eta hegoaldeko estatuen artean diferentzia handia dagoela, baina askotan ez dira guztiz jabetzen. Gure helburua diferentzia horiek gutxitzeko zerbait egin daitekeela azaltzea da, arazo honen aurrean

“Peruko Yatun eskualdeko biztanleak alfabetatzeko proiektua jarriko dugu martxan”

jendea sentsibilizatu nahi dugu”.

Aurtengo proiektua

Espainiako erakundeek Hego Ameriketako herrialdeekin egiten dute lan, hizkuntza aldetik arazo gutxiago sortzen direlako. “Ayuda en acción” Gobernu Kanpoko

Erakundea Madriletik gestionatzen da, eta bertatik banatzen dira proiektuak. Eibarko taldeak, Peruko Yatun eskualdeko biztanleak alfabetatzeko proiektua jarriko du martxan aurtengo kanpainan. Proiektuak 22.899,77 euroko kostua dauka, eta guztira, nekazal herrialdeetako 480 lagun alfabetatuko dituzte. Peruko beste erakunde batzuekin elkarlanean jarriko dute martxan proiektua, eta urtebeteko iraupena izango du.

Honekin batera, Elgoibar, Eibar eta Ermuko zenbait komertziotan itsulapikoak jarri zituzten joan zen udan. Oraindik ez dituzte jaso, baina esan digutenez, itsulapikoak nahiko beteta daudela uste dute: “Elgoibarko itsulapiko batzuk ikusi ditugu, eta diru dezente dagoela ematen du”.

Bestalde, Gabonetan Bidezko Merkataritza bultzatzen saiatu dira: “Herri desberdinetako ferietan egon gara produktuak saltzen. Gabon Zahar egunean King-Kong azpian izan ginen, baina ez genuen arrakasta handiegirik izan. Eibarren eta Durangon oso ondo joan zen”.

Produktuak saltzeaz gain, informazio gune bat ere jartzen dute, jendeari nortzuk diren eta zer egiten duten azaltzeko.

Iazko kanpainan Peruko San Juan de Lurigancho eta Villa El Salvador herrietako zuzendariak

“Ez dugu honekin dirurik irabazten eta lanerako prest dagoen jendea behar dugu

hezitzeko proiektua hartu zuten. Guztira 41.405 euroko kostua zeukan eta Eibarren 25.983 euro lortu ziren. Espainia osoan zehar dauden “Ayuda en acción” egoitzekin, proiektua burutu zela kontatu digute.

Jende beharra

Eibarko taldean hogeita lagun inguru daude, baina bakoitzaren eginbeharrak direla-eta, hamabi dira lan gehien egiten dutenak: “Lan boluntarioa da, ez dugu honekin

“Operación Terapia” antzezlan eskainiko du Aldan Company taldeak otsailaren 6an, Herriko Antzokian

Operación Triunfo telebista saio arrakastatsuan oinarritutako ikuskizuna eskainiko du Aldan Company taldeak otsailaren 6an, barixakuan, Herriko Antzokian. Erritmo biziko komedia musikal barregarria da “Operación Terapia”. Bertan, onerako edo txarrerako gure bizitzako soinu banda izan diren hainbat abesti ezagun entzun ahal izango dira. Gainera, Elgoibarkoa Euskadin antzeztzen duten estreinako saioa izango da. Sarrerak salgai daude Kultur Etxeko Kultura Sailean.

Eduardo Aldan, “El Club de la



Comedia” eta “5 hombres.com” eko aktore eta gidoilari bilbotarra da antzezlaneko zuzendaria eta

produktorea. Antzezleak, berriz, Xenia Reguant (“La Bella y la Bestia” musikaleko Bella), Thais Curia (“Guys and Dolls” musikalean lan egin du 3 urtez Londresen), Oscar Martinez (“Grease”, “Chicago” eta “West Side Story” musikaletan eta “Un Paso Adelante” saioko dantzari eta abeslaria) eta Gretel Stuyck (“Arroz y Tartana” telesailean lan egin du) dira.

Hauez gain, Angel Llacer OP akademiako irakaslearen parte hartzea izango du ikuskizunak eta birtualki bada ere baita Florentino

Berri Txarrak talde nafarraren kontzertua gaur, hilak 30,

Euskal Herrian puntakoa dugun taldea da Berri Txarrak. Musika gogorra egiten dute, metal estiloa landuz. Zuzenean entzuteko aukera izango dugu gaur, gaueko 22:30etik aurrera Gaztetxean. Lekunberriko laukoteak “Libre” lan berria aurkeztuko digu. Indarrez betetako rocka, melodiak eta hardcore doinuen aldeko apustua egin dute estudioan grabatu duten laugarren diskoan.

Azken aldia albiste izan da talde hau, “Leihotikan” taldearekin batera Madrileko Caracol aretoan urtarilaren 10ean eskaini behar zuten kontzertua bertan behera geratu baitzen. Izan ere, España 2000 ultraes-

kuindar alderdiak kontzertua boikoteatuko zuela iragarri zuen ETArek aldeko eta Espainiaren aurkako taldea zela argudiatuz. Honez gain, zenbait komunikabide kontzertua eta taldearen aurkako kanpaina egiten hasi ziren. Gauzak horrela, Caracol aretoko arduradunek kontzertua bertan behera uztea erabaki zuten segurtasuna ezin zutelako bermatu.

10. urteurrena

Berri Txarrak 1994ean sortu zuten Lekunberrin (Nafarroa), gaur egungo lau taldekideek. Beraietako bi, Gorka




Urbizu (abeslaria eta kitarra) eta Aitor G. (bateria), lehenago beste talde baten aritu ziren, “Nahi ta nahi ez” taldean, hain zuzen ere. Estatu Batuetan gaur egun egiten den metal garaikidearen itzalean jaiotako taldea da eta hasieratik hartu zuten euskaraz,



ESKERTZA

2004ko urtarilaren 21ean, 53 urte zituela hil zen
VICTOR QUINTANO ELETAn sendiak,
bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Zuzendaritza berria Morkaiko Mendizale Elkartean Bestalde, Bagneres de Luchonera eski irteera izango da otsailaren 13an

Urte berriarekin batera jende berria sartu da Morkaiko Mendizale Elkartean eta zortzi gaztek hartu dute aurreko zuzendaritzaren erreleboa. Aitzol Arriola izango da presidente berria eta honako hauek izango ditu laguntzaile: Igor Arriola, Ibon Gabilondo, Ion Iglesias, Aitor Romera, Ion Urbietta, Zigor Cornejo eta Asier Orbea. Urtero egiten diren ekintzez aparte orain arteko mendi irteerak antolatzen jarraitzea izango da zuzendaritza berriaren helburua. Toki desberdinak eta batez ere, norberak bakarrik egin ezin ditzakeen trabesiak edo irteerak prestatu dituzte. Bestalde, elkartearen web orria prestatzea eta posible bada ikastaroen bat antolatu eta diapositiba emanaldiren bat edo beste eskaintzea gustatuko litzaieke.

Aurreko zuzendaritzaren balorazioa

Aurreko zuzendaritza taldeak, Unai Egaña presidente zuenak, hiru urte egin ditu zeregin horietan eta lan txukuna egin ostean laga diete elkarte ondorengoei. Besteak beste, Errosario kaleko lokala berritzea eta elkartearen inguruko datuak informatizatzea izan dituzte zeregin nagusi. "Altzari eta ekipo berria: gehien eskatzen ziren mendiko tresnak, ordenagailu berria eta kamara digitala erosi genituen. Honetaz gain, Morkaikon jaiotza berria jarri dugu, baina batez ere, irteera batzuekin asmatu izan dugunaren sentsazioa daukagu. Irteera bakoitzeko autobuskada bat (50 pertsona) betetzea lortu dugu eta Elgoibarko Itzulian 155 partaidea izatera iritsi gara". Lorpenak alde batera utziz, asti faltaz egiteke laga dituzten zenbait gauza daudela adierazi digute, "ezin izan dugu egin



Argazkian zuzendaritza berria osatzen duten kideak.

nahi genuen web orria egin eta Eskola Kirolaren barruan umeekin irteerak lantzen ere saiatu ginen, baina ez dute inolako arrakastarik izan". Azkenik, lerro hauek elgoibartarrak agurtzeko eta eskerrak emateko aprobeztatu dituzte, "urte hauetan beraien laguntza behin eta berriro eskaini diguten lagun eta elkarteak eskertu nahi ditugu, bazkide eta irteeretan parte hartu duten guztiak eta baita Udal Patronatu eta Elgoibarko herria ere".

Eskiatzera irteera otsailaren 13an

Morkaiko Mendizale Taldearen urteko bigarren irteera Bagneres de Luchonera (Frantzia) eski irteera izango da otsailaren 13tik 15era. Izena emateko azken eguna otsailaren 9an, astelehenean, izango da. Cdaj aterpetxean hartuko dute ostatu eta "Superbagneres" estazioan eskiatuko dute. Luchon herri bertatik igotzen da funikularra eski pistetara.

2004KO EGUTEGIA

- Urtarrilak 31: Samiño-Beizama + bazkaria
- Otsailak 14-15: Eskiatzera irteera: Bagneres de Luchon
- Martxoak 28: Aralar inguruan trabesia: Aralar-minak-Lizarrusti
- Apirilak 25: Garobelen trabesia: Barrerilla-Delika-Txarlazo-Urduña
- Maiatzak 23: Elgoibarko Itzulia
- Ekainak 13: Finalista Eguna
- Ekainak 19-20: Pirineotan trabesia: Gavarnie-Goriz-Ordesa
- Uztailak 17-18: Pirineotara irteera: Anayet eta Telera
- Irailak 26: Valderejo-Erran trabesia
- Urriak 23-24: Iratin astebukaera
- Azaroak 20: Karakatera igoera
- Azaroak 28: Bilboko mendiak
- Abenduak 11-19: Argazki Lehiaketa
- Abenduak 31: Aizkorriara irteera

Zuhaitz Gurrutxagak Algecirasen jokatu du denboral-

Zuhaitz Gurrutxaga Realeko jokalaria elgoibartarrak bigarren mailako Algeciras (Cadiz) taldean jokatu du denboraldi amaierara arte Realak utzita.

Zuhaitzek jokatzeko aukera gutxi ditu talde txuri urdinean, kopako bi partidu bakarrik jokatu ditu aurten. Beraz, eta 23 urteko jokalaria gaztea dela kontuan izanik, partiduek ematen duten esperientzia hartzea falta zaiola adostu dute Realak eta San Migelgo jokalaria. Ez da erreza izan talde bat aurkitzea eta azkenean bigarren mailako Algeciras taldea agertu da Realeko zentrala fitxatzeko prest. Josu Ortuondo ondarrutarra da



entrenatzailea eta une honetan Bigarren B mailako azken postuan daude. Hain zuzen Eibar taldearen

Bizikleten mekanika, konponketa eta mantenu



Lagun Taldea Txirrindulari Elkartek ikastaro berezia antolatu du oraingoan: bizikleten mekanika, konponketa eta mantenua landu eta irakatsiko ditu ikastaro batean. Juan Kruz Zabaloa izango da irakaslea eta otsailaren 10etik martxoaren 4ra, astearte eta ostegunetan, 19.00etatik 21:00etara izango dira klaseak Lagun Taldea Txirrindulari Elkartek Aita Agirre plazan duen egoitzan. Izen ematea Lagun Taldean bertan (943 74 20 89) edo 658 758 458 telefonora deituta egin daiteke (19:00etatik 21:00etara). Prezioa 25 eurokoa da eta

Power Dumbell ikastaroa otsailetik aurrera

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak bere eskaintza handitzeko asmoz, ikastaro berri bat antolatu du Olaizaga kiroldegian.

Jarduera berri hau Power Dumbell deitzen da eta indarra, erresistentzia eta koordinazioa lantzen dira pisu batzuen laguntzaz.

Ikastaroaren irakaslea Nerea Egaña elgoibartarra izango da eta klaseak otsailean hasiko dira, hurrengo ordutegian: astearte eta



ostegunak, 20:00etatik 20:50era. Parte hartzeko Olaizaga kiroldegian eman behar da izena (943 74 44 15) eta

EMAITZAK

Futbola

Berio 1 – Kaundi 2 (Prof.)
Zarautz 2 – Elgoibar 0 (1. erreg.)
Elgoibar 0 – Ondarroa 3 (Jub.)
Beti Ona 1 – Elgoibar 4 (Kad.)
Touring 1 – Elgoibar 3 (Inf.)
Elgoibar 5 – Urki 0 (Neskak)
Eibar 8 – Elgoibar 3 (Neskak F-8)
Pedrusko 4 – Iintxa 2 (1. erreg.)

Esku pilota

Udaberri Saria
Eskoriatza 22 – Lagunak A 20 (Nag.)
Eibar 22 – Lagunak B 18 (Nag.)
Hernani 16 – Lagunak 22 (Jub.)
Lagunak A 22 – Bergara 18 (Kad.)
Lagunak B 6 – Elordi 22 (Kad.)

Eskubaloia

Eharialedea 15 – Pagoaga Elg. 11 (Kad. nesk.)
Tecnomeca Elg. 22 – Escolapios 31 (Kad. mut.)
Eharialedea 17 – Cometel Elg. 14 (Jub. nesk.)
Pneumax Elg. 25 – Escolapios 19 (Jub. mut.)
Arrasate C 17 – Antt Softian 15 (Sen. mut.)
Bergara 32 – Tecnifuelle Elg. 31 (Sen. mut.)

Areto Futbola

Kenci Elg. 7 – Santurtzi 2 (Nazional B)
Tecnum 4 – Lanbroa 4 (2. malla)
Magesa 7 – San Jorge 5 (Jub.)
Aloña-Mendi 6 – Lojantzi 0 (Jub.)

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Zapatua, 31
15:30 Elgoibar – Gasteiz (Neskak F-8)
17:00 Elgoibar – Segura (1. erreg.)
Domekia, 1
10:00 Elgoibar – Bergara (Aleb.)
12:30 Elgoibar – Real Union (Inf.)
16:30 Elgoibar – Oiarzun (Kad.)

Eskubaloia, Kiroldegian

Zapatua, 31
17:30 Pagoaga Elg. – San Adrian (Kad. nesk.)
19:00 Cometel Elg. – San Adrian (Jub. nesk.)
Domekia, 1
9:45 Antt Softian – Pulpo (Sen. mut.)
11:00 Tecnifuelle Elg. – Loyola (Sen. mut.)

Esku pilota, Ikastolan

Barixakua, 30
21:15 Lagunak – San Esteban (Jub.)
22:00 Lagunak B – Beloki (Nag.)
22:45 Lagunak A – Bergara (Nag.)

Areto Futbola, Kiroldegian

Zapatua, 31
12:30 Lojantzi – Lasarte B (Jub.)
16:00 Kenci Elg. – Sasikoa (Nazional B)
Domekia 1
11:30 Lanbroa – Adarra (Jub.)

Lana

ESKAERA

- Emakumea goizez edo arratsaldez umeak zaintzeko prest. ☎ **943 74 27 41**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **660 69 53 03**
- Emakumea garbiketa lanak egin, umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **639 88 20**

ESKAITZA

- Kamareroa behar da.

☎ **943 03 01 50**

- Neska pelukeroa behar da. Esperientziaduna eta euskaraz dakiena. ☎ **943 74 18 64**
- 40 urtetik gorako emakumea behar ba ume bat eskolara eraman eta ekartzeko. ☎ **943 53 16 16**
- Kamareroa behar da. ☎ **943 74 42 65**
- Elgoibar-Eibar ingurunerako banatzailea behar da. Ordutua. ☎ **607 46 80 14**

OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

Etxebizitzak

- Etxea salgai Santa Ana kalean. 2 logela, egongela, komuna, sukalde-jangela eta 2 ganbara. ☎ **665 70 30 24**
- Pisua salgai erdigunean. 3 logela. Berritua. Altxariek. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **661 42 60 77**
- Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **943 74 28 32/686 60 02 39**
- Elgoibarren pisua osatzeko jendea behar da. ☎ **610 45 85 52 (Nerea)**

Bestelakoak

- Herri Eskolako tanborrada egunean zilarrezko erlojua galdu nuen eskolako patioan. Aurkitu duenak Udaltzaingoa lagatzea mesedez. ☎ **943 74 15 09**
- Txikipark traspasatzen da Eibarren. ☎ **653 733 759**
- Artzai txakur euskalduna oparitzen dut ezin dudalako zaindu. Urte eta erdi dauka. Baserritar betek edo pertsona arduratsu batek hartzea gustatuko litzaidake. ☎ **677 09 70 15**
- Fisioterapia zerbitzuak eskaintzen ditut etxetik. ☎ **630 97 85 49 (Olatz)**
- Gabon ostein, norbaitek bi opari lagatzen ahaztuta plastikozko poltsa bat. ☎ **943 74 31**

- Pisua salgai Plaza Txikian. Altxariek, bizitzera sartzeko moduan. Oso polita. Berritua. 2 logela. Dena kanpora begiratu. ☎ **646 50 28 66**
- Etxea salgai Santa Ana kalean. Eguzkitsua, 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **636 22 31 42**
- Etxea salgai erdigunean. 2 logela, egongela, komuna, sukaldea eta ganbara. Altxariek. ☎ **943 74 23 21**
- Pisua salgai Santa Ana kalean. ☎ **625 70 94 44/625 70 94 45**
- Donostiako Antigua auzoan atiko polit bat salgai. ☎ **629 53 40 94**
- Neskak pisua edo apartamentua hartuko luke alokairuan Elgoibar, Mendaro edo Altxolan. ☎ **696 79 25 83**
- Bi logela alokatzen ditut Sigman. ☎ **659 627 356**

Garajeak

- Garajea salgai Santa Ana kalean, Ametsa taberna aurrean. ☎ **943 74 05 85 - 615**

Lokalak

- Osasun arloko zentro batek lokala alokatzen du Eibarren. ☎ **943 79 97 46**
- San Bartolome kalean lokal komertziala alokatzen da. Ez du obra beharrik. Prezio onean. ☎ **943 58 40 39 (20:00-21:30 artean deitu)**
- Soziedade bihurtzea gustatuko litzaidakeen lokala daukat. Bazkide izate-

Salerosketa

- 1997ko furgoneta salgai. Kanpingerako egokitua. Toldoa, ohea, mahaia, berogailua, alarma. 102.000 km. Egoera onean. 6.600 euro. ☎ **669 02 63 55**
- Citroen C-15 furgoneta salgai. Pintatu berria. 1000 euro. Egoera onean. ☎ **943 74 35 26/630 85 03 90**
- Seat Ibiza autoa salgai. ☎ **627 417 833**
- Volkswagen Passat TDI familiarra salgai. Urdina, 105 zaldi, 102.000 km, 4 airbag, aire egokitua, CD, EE, DA,

Partikularrak

- Ingeles Filologian Lizentziatuak klase partikularrik ematen ditu. Maila guztiak. Goiz eta arratsalde. 10 urteko esperientzia. ☎ **943 74 31**



INMUEBLE AGENTZIA



Borda eta lurrak salgai San Lorentzon. 1.000 m² kolunpioen ondoan. Oso eguzkitsua. Egokia elkarte eta umeak dituztenen bikoteentzat.

San Frantzisko, 34 Tel./ Faxa: 943 74 84 27



JOSE pinturak (Txema)

Mota guztietako pintura eta enpapelatuak. Zoluak, moketak, sintasola, kortxoa, etab. jartzen dugu.

San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14

Agurrak



■ Zorionak **Kepa**, otsailaren 3an, 3 urte beteko dituzulako. Etxekoien partez.



■ Nor zara? Pista bat: Hilaren 5ean zure eguna da. Badakizu nor zaren? Jateko modukoa zeunden, orain ez jan iza-naz damutzen gara. Zorionak!




tez.
■ Zorionak **Unai**, hilaren 1ean, 2 urte beteko dituzulako. Aiton-amona eta familiako guztien partez.



■ Zorionak **Nagore**, hilaren 31n 12 urte beteko dituzulako. Etxeko guztien partez.



■ Zorionak **Norri**, urtarilaren 29an, 3 urte bete zituzulako. Etxeko guztien partez.



■ Zorionak **Julen**, zure lehenengo urtebetetzean. Etxeko guztien partez.



■ Zorionak **sorgintxo**!

Beitxu ze gaizto aurpegi dakazun argazki honetan! Muxu asko ikastolako laguntxoien partez.



■ Zorionak **Arianari**, gaur, hilak 30, 10 urte bete dituzulako. Aiton-amona, guraso eta bereziki, ancia Anderren partez.



■ Zorionak **Iker** eta **Mario**, hilaren 29an urtebete egin zenutelako. Familiakoien, eta bereziki, Borja eta Nerea lehengusuen partez.

BEKAK

Graduatu ondoko prestakuntza

Caja Madrid fundazioak lizentziatu eta goimailako tituludunentzat Europako Batasuneko eta Estatu Batuetako unibertsitateetan ekonomia, soziologia, politika-zientziak, zuzenbide politikoa eta zuzenbide konstituzionalari dagozkien gaietan graduatu ondoko prestakuntza jasotzeko bekak hornitu ditu. Beken onuradunek Master ikasketak, Doktoretza edo Doktoretza ondoko Ikerketak egin ditzaten. Baldintzak: goimailako titulua eta bekak helburu dituen ikasketak egiteko herrialdeko hizkuntza ahoz eta idatziz ondo menperatzea. Epea: martxoak 5

LEHIAKETAK

Iritzi artikulua

EHUK, Arabako Campuseko Errektoreordetza eta El Correo-k Iritzi-artikuluaren I. Unibertsitate Lehiaketa antolatuta dute. Bertan EHUKo ikasle guztiek parte hartu ahal izango dute, euskarazko zein gaztelaniazko gehienez ere 2 orrialdeko luzerako artikulua bakarria aurkeztuz. 1.000 euroko sari bakarria. Epea: otsailak 4

JARDUERAK

Etxebizitza Gazte Ontzia

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) etxebizitzaren arazoa konpontzearen aldeko apustu garbia abiatzeko "Etxebizitza Gazte Ontzia" izeneko programa jarri du martxan, gaiari buruzko interesa duten hiru gazte talde osatzeko helburuarekin, EAEko lurralde bakoitzeko talde bana. Hasierako batzarra otsailaren 9an, astelehenean, arratsaldeko 19:00etan izango da EGKk Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian dituen egoitzetan. Bertara interesa duen gazte oro aurkez daiteke aurretik izenik eman gabe. www.egk.org

Legazpiko Gaztetxea

Legazpiko Gaztetxeak, bere 13. urteurrena dela-eta, akanpadak, erakusketak, kontzertuak, ikastaroak, tailerrak eta beste hainbat ekintza antolatuta ditu datozen asteetara begira. www.legazpikogaztetxea.com

LANA

Santurtziko Udala

Santurtziko Udalak ondorengo lanpostuak betetzeko oposizio-lehiaketa librean antolatuta ditu: ordenantza bat, 8 administrari laguntzaile, 4 administrari, liburutegiko 5 laguntzaile, musika irakasle bat, 2 gizarte-langile (hauetako bat ezinduentzat gordeta). Baldintzak: lanpostuaren araberrakoa. Epea: otsailak 10

Gaztelania irakasleak Alemanian

Hannoverreko Hezkuntza Ministerioa gaztelania irakasle bila dabil, 2004/2005 ikasturteetik aurrera denbora mugatu baterako lan egiteko. Baldintzak: 30 urtetik beherako adina eta Europako edozein hizkuntzan filologo lizentziatu edo doktore izatea. Epea: otsailak 10

Euskara-Teknikaria

Zumaia Udalak Euskararen Erabilera

30 BARIXAKUA

22:30 KONTZERTUA

Taldea: Berri Txarrak

Gaztetxean

Antolatzailea: Gazte Asanblada

Sarrera: 4 euro



3 MARTITZENA

18:30 GURASOEN VI. JARDUNALDIK

Kultur Etxeko hitzaldi gelan

Antolatzailea: Herri Eskolako

Gurasoen Elkartea

4 EGUAZTENA

14:30 SANTA ESKEA

Baserriz baserri

Irteera: Plaza Handitik

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra



15:30 SANTA AGEDA BEZPERA

Ikastolako haurrak kantari kalez kale

Ikastolatik Plaza Handiraino

18:00 HITZALDI-KONFERENTZIA

Gaia: Drogomenpekotasunaren prebentzioa

Hizlariak: Agipad Elkarteko adituak

Ezenarro Institutuko Areto Nagusian

Antolatzailea: Elgoibarko Institutuko

Guraso Elkartea

6 BARIXAKUA

22:15 "OPERACION TERAPIA"

IKUSKIZUNA

Taldea: Aldan Company produkzioak

Herriko Antzokian

Sarrerak: Kultur Etxean (goizez)

karkizano

San Frantzisko, 14 - Tel. 943 74 05 49

Arrieta

San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

Familia, bikote eta banakako terapia

PSIKOLOGIA

► Harreman arazoak:

- Familia
- Bikotea
- Kideak

► Jarrera arazoak

► Porrot eskolarra

► Antsietatea, depresioa, elikagai arazoak...

Edificio Aurrera Urtzaile kalea, 1 - **EIBAR**

Miriam Mujika Tel. 676 61 70 55
Ainhoa Basurko Tel. 615 70 37 25

barne, 26 eurokoa izango da. Interesatuak 943 74 08 22 telefono zenbakira dei egin dezakete.

SANTA ESKEA

Kopla kantari baserriz baserri

Urtero legez, Santa Ageda Bezperako diru-eskea egingo da Elgoibarren baserriz baserri. Otsailaren 4an, eguaztenean aterako dira koplariak Plaza Handitik eguerdiko 14:30ean. Bi taldetan banatuta 20 lagun inguru aterako dira San Migel, San Pedro, San Lorentzo eta Urruzuno baserri-auzoak koplatzeko asmoz. German Meabe, Ziarda, Areitio eta Narbaiza izango dira koplariak eta Baltzola anaiak eta Ekaitz eta Arantxa trikitilariak. Gaueko 22:30ak aldean amaituko dituzte lanak eta San Migelgo soziedadean egingo duten afariarekin amaituko dute eguna.

HITZALDIAK

Drogomenpekotasunen prebentzioa

Seme-alaben eta ikasleen heziketa hobetzeko helburuarekin, Elgoibar Bigarren Hezkuntzako Institutuko Guraso Elkarteak eta Zuzendaritzak, "Drogomenpekotasunen prebentzioa" izeneko konferentzia-elkarrizketa antolatu du. Datorren otsailaren 4an, asteazkenean izango da arratsaldeko 18:00etan Ezenarro Institutuko areto nagusian (Mekanikan). Hitzaldian aztertuko diren gaiak oso interesgarriak dira guraso zein hezitzaileentzat. Besteak beste, nola heldu drogen gaia seme-alabekin aztertuko da. Prebentzio lanetan espezializatutako

IKASTAROAK

"Djembe" danborrak

Gazte Asanbladak "Djembe" danborrak egiten ikasteko ikastaroa eskainiko du. Irakasle brasildarra izango du ikastaroak eta martxotik apirilera bitartean zapatu goizero izango dira klaseak Gaztetxean. Besteak beste, larru-zuraketa eta danborraren oinarria egiten ikasiko dute izena ematen dutenek. Gaztetxean bertan eman daiteke izena. Gazte Asanbladatik adierazi digutenez, aurrerago danborra jotzen ikasteko ikastaroa egitea aurreikusten dute.

KINTOAK

51ko kintoen bazkaria

1951ko kintoek bazkaria izango dute datorren martxoaren 13an eguerdiko 14:30ean Sigma jatetxean. Argibide gehiago nahi izanez gero, edo kontsultak egiteko deitu 943 74 85 31 edo 943 74 01 82 (Hilario Agirrebeña). Izena ematerakoan, 10 euro eman beharko dira seinale moduan.

IRTEERAK

Lourdesera bidaia

Datorren otsailaren 11n, asteazkenean, Lourdesko Amabirjinaren Eguna dela-eta, Lourdesera (Frantzia) bidaia egingo du elgoibartar talde batek urteroko ohiturari jarraituz. Goizeko 6:15ean aterako da autobusa Elgoibartik eta itzulera, berriz, iluntzeko 21:00ak inguruan izango da. Bidaiaren prezioa, autobusa eta bazkaria



KARTELDEGIA

ELGOIBAR, Herriko Antzokian

"Dias de futbol"

30, barixakua: 22:15

31, zapatua: 19:30-22:15

1, domekia: 19:30-22:15

2, astelehena: 22:15

"Los Looney Tunes"

1, domekia: 16:30

EIBAR, Unzaga

"El Señor de los anillos:
el retorno del rey"

30, barixakua: 21:30

31, zapatua: 17:00-21:30

1, domekia: 17:00-21:30

2, astelehena: 21:30

3, martitzena: 21:30

4, eguaztena: 21:30

EIBAR, Rialto

"La sonrisa de Mona Lisa"

30, barixakua: 19:30-22:15

31, zapatua: 17:00-19:30-22:15

1, domekia: 17:00-19:30-22:15

2, astelehena: 19:30-22:15

3, martitzena: 19:30

4, eguaztena: 19:30

BARRENEK ez du gerta litezkeen emanaldien
aldaketen erantzukizunik.



"Dias de futbol"

Zuzendaria: David Serrano.

Antzezleak: Ernesto Alterio, Alberto San Juan, Natalia Verbeke.

Jorgek 30 urte besterik ez ditu, baina bere bizitzak ezin duela okerrera egin sinistuta dago. Daukan lanak izugarri atsekabetzen du eta neskalagunak utzi egin du ezkontzea nahi zuen galdetu eta berehala. Bere lagunaren egoera ez da askoz hobea, denak baitaibiltza noraezean dituzten ametsak ezin betez. Denak ados daude; bizimoduz aldatzeko unea iritsi da, baina otu zaien ideiarik onena gaztetan zuten futbol taldea berriz osatzea izan da. Bizitzan zerbait irabazteko irrika dute, futbol 7 torneo bat bada ere.

NINE



ste honetako erretratu zaharra herritar batek laga digu. 1968. urteko uztailaren 13an, Mutrikuko "Ametza" tabernan ateratako argazkia da. Koadrila honek ez zeukan izenik, baina sarritan egiten zituzten lagunarteko bazkariak, eta haxe da horietako bat. Esan digutenez, umore onean eta oso gustura pasatu zuten eguna. Gogora ditzagun zein diren argazkian ageri zaizkigunak.

Zutik, ezkerretik eskumara: Alfredo Arriolaga (☞), Miguel Diego (☞), Emilio Iturregi, Antonio Perez (☞), Fernando Perez (☞), Fernando Marcos (☞) **eta** Juanito Eguren.

Eserita, ezkerretik eskumara: Alfredo Ruiz (☞), Alejandro Perez (☞), Pako Arriola (☞), Pako Egaña (☞) **eta** Casimiro Arozena (☞).



Bukatu S. Coop.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

Anchústegui



**ESPOSIZIOA
ALMAZENA
BULEGOA**

Olaso industrialdea
Olasope, 5 - 20870 - ELGOIBAR
Tel: 943 74 33 44 - 74 23 71
Faxa: 943 74 37 11

espainiar estatua salatzera goaz!!

ESPAINIARI EL



**parte
hartu!**

EKIMENAREN AURKEZPENA
larunbata 31, 12:00etan
Foruen Plazan

**euskal
herria**



AITORTU ★ ERRESPETATU

BADAŦOR...



KOMEDIA MUSIKALA

ESTREINALDIA EUSKADIN

Herriko Antzokian

Otsailak 6

Ostirala

22:15ean

ALDAN COMPANY

*Zuzendaria eta
produktorea
Eduardo Aldan*



Sarrerak aurrez salgai Kultur Etxean (goizez)

EGIZU LO, TARTALO



Otsailak 8, igandea
16:30ean, Herriko Antzokian



(5-10 urtekoentzat)

EUSKARAZ



KULTURA SAILA



FORU ALDUNDIA

